

Lezoko zine agenda


UZTAILA

JULIO

2004



800
zine ma



ASÍ ES LA VIDA

1993an "Principio y fin" filmarekin eta 2000an "La perdición de los hombres"ekin Donostiako Zinemaldian urrezko maskorrak lortu zituen Arturo Ripsteinek. Jada gonbidatu nahiko finkoa den zine zuzendari honek beti proposamen interesgarri eta emankorrak egin ohi ditu.

Mexikoko zuzendari aipagarrienetarikoa oraingoan, besteetan bezala, giza harremanetan oinarritutako historia gogor bat dakarkigu.

2000, Mexiko 98 min. Arturo Ripstein.
Aracelia Ramírez, P.R. Spindola, L.F. Tovar, E. Yáñez.



LA LEY DE LA CALLE

Mickey Rourke gaizkile banda bateko partaide izandakoa jada ez da lehengoa. Californiatik bueltan dator urte batzuk igaro ondoren eta bertako poliziarekin kontu batzuk ditu oraindik argitzeko. Rusty James (Matt Dillon) bere anaiak, berriz, eredutza du eta erabat miresten du. Garai haietara itzuli nahi du eta hura bezala lider bilakatu.

Donostiako zinemaldian sari nagusia jaso zuen 1984an eta jada klasiko bihurtu den filmea dela esan behar da.


1983, EEBB 94 min. F.F.Coppola.
Matt Dillon, Mickey Rourke, Diane Lane, Dennis Hopper.



GHOST WORLD

Daniel Clowes komikilariaren lanean oinarritzen da filmea. Bi gaztek institutua amaitu berri dute. Uda oso aurretik eta aurrera begira bizitzan zer egin nahi duten erabaki beharra. Aurrean duten egoerak itxaropenari lekuri ez die uzten: lana baldintza txarretan, etxetik alde egin beharra, lagunengandik aldendu beharra... Umoro oso garratzaren bidez dirudiena ez den gizarte baten irudi oso kritikoa. Protagonistak bi gazte izateak ez du esan nahi gazteentzako pelikula denik, ehi?

2000, EEBB, EB, Alem. 111 min. Terry Zwigoff.
Thora Birch, Scarlett Johansson, Steve Buscemi, Brad Renfro.



ALTA FIDELIDAD

Frears ezaguna dugu Lezon, joan den otsailean berak zuzendutako "Liam" pelikula proiektatu baienuen. Erabat erregistro ezberdinean, binilozko disko saltzaile baten berri emango digu. Saltzaileak musikarekiko, baina baita bizitzarekiko duen jarretan sakonduko du filmeak Frears-ek gauzak kontatzen dakien estiloan. Filmarekin haspertzen bazara zer egin diozu? Itxi begiak eta musika entzun: The Kinks, Stereolab, Bruce Springsteen, Monks, Queen... eta horrela 60 abesti zati entzun arte...


2000, EB 113 min. Stephen Frears.
John Cusack, Iben Hjejle, Todd Louiso, Jack Black, Lisa Bonet.



JACKIE BROWN

Tarantino ezagutzen ez duen gutxi izango da zinema jarraitzaileen artean. Eta ezin esan daiteke oso zuzendari emankorra denik, guztira ez baitu dozena erdi bat luzemetrai baino gehiago zuzendu. Guztien artean "Jackie Brown" hau da ezezagunena, ez ordea okerrena! Tarantinok genero beltza lantzen jarraitzen du berak oso ongi dakien bezala. Bestalde, oraingoan odol eta kolpe eszenak gutxiago erabiliz elkarriketat (bikainak) izango ditu tresna nagusi.


1997, EEBB 151 min. Quentin Tarantino.
Pam Grier, Samuel L.Jackson, Robert de Niro, Bridget Fonda, Michael Keaton.



HANNA-BI

Izen propioa duen zine zuzendari-antzezlea da Takeshi Kitano. Maiz guretzako japoniar zinema ulertzeko zaila bada ere, Kitanoren lorpenetako bat bere filmek herrialde hura eta mendebaldekoen arteko zubilana egin izana da. Artista honen beste ezaugarri bat, gordinkeria eta sentsibiltatea bezelako muturreko bizipenak inork baino hobeki marratzen jakitea izan liteke. Filme hau da seguruenik Kitanoren lanen artean bi alderdi horien garapenen adibiderik hoberena.


1997, Japonia 103 min. Takeshi Kitano.
Takeshi Kitano, K. Kishimoto, R. Osugi, S. Terajima.



BRASSED OFF (Tocando el viento)

Grimleyko hiritarrak lan-iturri bakar bat dute: meategia. Azken zurrumuroak ordea, berau itxekotan direla diote. Meategitako langileekin osatutako musika bandako partaideen animoak gero eta eskasagoak dira musikari berri bat datorren arte... Margaret Thatcher Erresuma Batuko agintaria zeneko testuinguruan kokatua, honen politikak eragindako berregituraketa ekonomiko orokorren eragin sozialek hainbat pelikula egiteko adina eman zuen. Horietako bat da eskuartearen dugun hau.


1996, EB 109 min. Mark Herman.
Ewan McGregor, Peter Postlethwaite, Tara Fitzgerald.



HOMBRES ARMADOS

Gezurra badirudi ere, Estatu Batuetan zinema independentea egiten da. Eskuko behatzekin zenbakitu badaitezke ere, badira horretan dabilzan gutxi batzuk eta guztien artean John Sayles da ziurrenik behatz potoloa. Filme honetan Humberto Fuentes (Federico Luppi) medikua berak formatutako beste mediku baten heriotza ikertzera doa latinoamerikako ohian batera... indioak, paramilitarrak, gerrilla... Ezaguna den egoera baten berri zuzendari irriteragarri eta antzezle paregabe baten eskutik.

1997, EEBB 127 min. John Sayles.
Federico Luppi, Damián Delgado, Tania Cruz.



TODO POR UN SUEÑO

"Eyes Wide Shut", "El retrato de una dama", "Las horas", "Los otros" edo "Dogville" bezalako filmak egin dituen antzezle bati bere balio aitortu behar zaio, nahiz eta bere curriculumaren bigarren zatia osatzen duten beste filmek ia mespretxagarriak izan. Iritziak iritzi, Nicole Kidmanen lehenengo multzo horretako lehen filmea "Todo por un sueño" da. Suzanne Stonek telebistan lanean aritzeagatik edozer gauza egingo luke, baina noraino iristeko gai da?

1995, EB, EEBB 106 min. Gus van Sant.
Nicole Kidman, Matt Dillon, Joaquin Phoenix, Casey Affleck, Dan Hedaya.



LA HUIDA

Peckinpah estiloa ezagutzen ez duenarentzat aukera polita da zuzendari honen obrarekin harremanetan jartzen hasteko. Antiheroiak, legez kanpo dabilzan pertsonaiak eta indarkeria beti presente dituzten historien zale izan zen zuzendari hau. "La huida" ardatz horietan oinarritutako "road movie" klasiko da. Steve McQueen-ek kartzelatik atera eta banku bat lapurtu behar du. Ez dira gauzak beti nahi bezala ateratzen eta ...

1972, EEBB 122 min. Sam Peckinpah.
Steve McQueen, Ali MacGraw, Ben Johnson, Sally Struthers.



HARAN SORGINDUAREN BILA

"Hankatxo" amarengandik aldendu duten brontosaurioa da. Triste eta bizitzari nola aurre egin behar horretan, badaki badela nonbait "haran handia" izeneko leku bat. Bertan janaria eta edaria nahi adina aurki daiteke. Leku apoprosa beraz brontosaurio heldua izan bitartean bizitzeko. Kontua bertara iritsi behar dela da. Bidean lagunak elkartuko zaizkio, baina baita etsaiak azaldu ere.

Kolorez eta abenturaz beteriko filme hunkigarria!

1988, EEBB 70 min. Don Bluth.
Marrazki bizidunak.



BOSTAK

Nork ez ditu bostak ezagutzen? Eta bere abenturak? Gaurkoan hiru abentura ikusteko aukera izango duzue: "Bostak Kirringo uhartean", "Bostak deabruaren harkaitzetan" eta "Bostak pasabide sekretuaren bila".

Beti gaizkileen atzetik eta abentura zirraragarriak biziz kasu guztiak argitzeko gai izango dira hiru abentura hauetan.

1996, EB 75 min. Hainbat.
J.Rooper, M.Williamson, Paul Child, Laura Petela, C.Good.



LUCKY LUKE (Daltonta-rren lorratzean / Dalton City)

Bi historia ezberdin kontatzen dira filme honetan. Lehenengoan, Daltontarren kartzelatik alde egin dute. Kartzelazainaren zeregina izango da berriro lau anaiak preso ekartzea, baina lan zaila berarentzat bakarrik. Lucky Luke-ri laguntza eskatuko diote. Bigarren historian, akats baten ondorioz, Joe Dalton aske utziko dute eta anaiak askatu ondoren herriaren jabe egingo dira. Lan gogorra asteburu honetan Lucky Luke-rentzat!

1996 60 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak.



HIRUKIAK

Marrazki bizidun oso berezi eta politak. Pertsonai kurioso eta maitagarriak. Hiru historiak osatzen da egun honetako emanaldia. Lehen-goan hirukiak espaziora egingo dute bidaia. Bigarren goan lurraren erdira hurbiltzen saiatuko dira eta hirugarrenean musikaren muinak ezagutuko dituzte Amadeus izeneko gaztetxo oso famatu baten bidez.

2000, E.H. 70 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak.



UZTAILA - JULIO

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 1	22:00	ASÍ ES LA VIDA
LARUNBATA 3	22:00	HANNA-BI
IGANDEA 4	16:30	HARAN SORGINDUAREN BILA
OSTEGUNA 8	22:00	LA LEY DE LA CALLE
LARUNBATA 10	22:00	BRASSED OFF euskaraz
IGANDEA 11	16:30	BOSTAK
OSTEGUNA 15	22:00	GHOST WORLD
LARUNBATA 17	22:00	HOMBRES ARMADOS
IGANDEA 18	16:30	LUCKY LUKE (DALONTA-RREN LORRATZEAN / DALTON CITY)
OSTEGUNA 22	22:00	ALTA FIDELIDAD
LARUNBATA 24	22:00	TODO POR UN SUEÑO
IGANDEA 25	16:30	HIRUKIAK
OSTEGUNA 29	22:00	JACKIE BROWN
LARUNBATA 31	22:00	LA HUIDA

MUSIKA

eguna/día	ordua/hora	ekitaldia
OSTIRALA 2	22:00	LOS REYES DE KO



OSTIRALA • viernes — ekainak 2

MUSIKA



5,00 €

LOS REYES DEL KO

Marcos Coll (Harmonika) eta Adrián Costa (Ahotsa eta gitarra) Santiago de Compostelan hasi ziren elkarrekin jotzen, 1992. urtean. Red Blues Band eta Bluerags bezalako taldeak osatu eta gero, Madrilén jarri ziren bizitzzen 1999. urtean, eta Tonky Blues Band Espainiako blues talde ospetsueneko partaide bihurtu ziren. Banda horrekin blues eta jazz jaialdi ugarietan parte hartu zuten penintsula osoan barna, eta Amar Sundry, Zack Prather, Mick Taylor (Rolling Stones taldekide ohia) eta Buddy Miles (Jimi Hendrix eta Santanaren taldekide ohia) bezalako artista handiei lagundu zieten. Aipatutako artista horiekin zuzenean jotzeaz gainera hainbat disko grabatu dituzte.

Bikotearen lehenengo lana *COLL VS. COSTA* sekzio erritmiko handi batez lagundurik aurkeztuko da Lezon, **Javier Vacas** (Baxua) eta **Antonio Álvarez** (Bateria). Badira hamar urte baino gehiago elkarrekin jotzen dutela. Banda askotan izan dira partaide: Chocolate Blues Express, Amparanos del Blues eta Amparanoia. Egun La Vacazul eta Tres Hombres taldeekin egin ohi dute lan, hainbat urte daramatzate penintsulan barna jotzen. Jazza, reggaea, funka eta, jakina, bluesa bezalako musika moldeak interpretatzeko moduko oinarri erritmiko sendoa eta luxuzkoa osatzen dute.

Sarrera labur honen ostean, espero dut bikote honen aurreneko lana entzutean gozatu nuen beste gozatzea zuek entzutean.

Abuztuan gu ere
oporretara goaz!
Uda ona pasa eta
IRAILERA ARTE!